

euskal Herria



Manifestazio jendetsua egin zuten atzo ilunabarrean Bilbon, jardunaldiaren lehen saioa burutu ostean. MONIKA DEL VALLE / ARCAZI PRESS

Erabakimenik izan ezean feministek ez dute onartzen parte-hartze instituzionalik

1.500 emakumek parte hartu dute Euskal Herriko Jardunaldi Feministen lehen egunean

MAITE ASENSIO
Portugalete

Persona politikoa da leloa bere egin zuenetik, mugimendu feministak bere izaera politikoa plazaratu zuen, eta berori aldarrikatu hasi zituzten atzo Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak, Feministok eraldaketarako borrokan lelopean. Aurreikuspen guztiak gainditu zituen parte-hartzeak, 1.500 emakume bildu baitziren Portugaleteko (Bizkaia) Nautika Fakultatera. Gaur amaituko dira jardunaldiak, Emakumeok, gure identitateak eta gure gorputz intimituak ardatza jorratu ostean. Parte-hartze soziopolitikoari buruzko eztabaidak aparteko lekua izan zuen atzoko saioan, eta erabakimen gabeko parte-hartzerik ezin dela onartu argi utzi zuten emakumeek. Ilunabarrean manifestazioa egin zuten Bilbon.

Hamalau urte igaro dira azken jardunaldi feministak egin zirenetik, eta ordutik aurrerapenik lortu den arren, emakumeek nabarmendu dute mugimendu feministak aldarrikapen berberak mantentzen dituela, funtsean. Emakumeen eskubideen aldeko borroka eremu publikoan hedatu da, baina harago egin behar dela esan dute: «Gizarte mugimenduek ezin dute onartzen jo politika profesionalen esku uztea». Hartara, feministek instituzioetan duten parte-hartzea eraginkorra den zalantzan jarri dute, eta parte-hartzea onartzeko baldintzat erabakitze ahalmena ziurtatzea ezinbestekoa deritzote. Eguneko gai nagusietako bat izan zen. Ez bakarria:

Parte-hartze soziopolitikoak

Duela hamalau urte Euskal Herriko III. Jardunaldi Feministak egin zirenetik, emakumeek eta emakumeen eskubideen inguruko ezta-

Hamalau urte igaro dira azken jardunaldiak egin zirenetik, eta aldarrikapen berberak mantentzen dira

baidak presentzia handiagoa dute instituzio publikoetan. Presentzia horrek, ordea, ez dakar parte-hartze soziopolitiko errealek, eta instituzio horiek, gainera, ezin dira mugimendu feministen ordezkotzat hartu, ezta ordezkartzat ere. Gainera, talde feministek egindako autokritikaren arabera, mugimenduak ez du lortu erakunde publikoen solaskide izatea, hau da, emakumeei dagozkien gaien inguruko informazioa behar dutenean instituzioek ez dute feminismora jotzen. Hori guztia dela eta, talde batzuek zalantzan jarri dute instituzioetan parte-hartzeak benetako emaitzarik dakarren; beste batzuek, aldiz, beharrezkotzat dute.

Instituzioetan parte-hartzeak mugimendu feministaren izaera politikoa izan behar du oinarri; partaidetza horren bidez, emakumeek eragiteko gaitasuna izan dezaten. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da: emakume kontseiluak

Talde batzuek zalantzan jarri dute instituzioetan parte-hartzeak benetako emaitzarik dakarren

organo aholkulariak dira, hau da, ez dute erabakirik hartzeko ahalmenik. Abagune hori aldatzeko beharra nabarmendu dute; plaza-ratutako ideien artean, instituzioetan parte-hartzeko baldintzak jasoko dituen protokolo bateratu bat egiteko bat etorri dira emakume gehienak.

Edonola ere, kaleko borroka ezin dela alde batera utzi, eta instituzioetan parte-hartzeak eragiteko beste modu bat izan behar duela nabarmendu dute. Horrek, ordea, beste galdera bat jartzen du mahai gainean: nola parte hartu instituzioetan herri mugimenduen identitatea galdu gabe?

Feminismoaren aniztasuna

Era askotako emakumeak dauden neurrian, mugimendu feminista ere plurala dela onartzen dute elkarrekin, eta, beraz, aldarrikapen desberdinak ez ezik, borrokan jarduteko era desberdinak badituztela. Horiek guztiak biltzean datza feminismoaren erronketako bat.

Horretaz gain, emakumeen eskubideen defentsara gehitutako beste taldeekiko elkarlana definitu beharrean dago mugimendu feminista. Ildo horretan, euren burua feministatzat jotzen ez duten emakumeen elkarrekin inguruan kezkatuta agertu dira talde feminista batzuk, baita sindikatu batzuek emakume sailekin izan di-

Euren burua feministatzat ez duten emakumeen elkarrekin inguruan kezkatuta agertu dira

tuzten desadostasunekin ere. Halaber, berdintasunaren aldeko gizon taldeak ere agertzen ari dira, eta horiekin elkarlanean jarduteko formulak aztertu beharra nabarmendu dute.

Gizarte patriarkala

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologikoak hierarkia bihurtzen direnean sortzen da indarkeria sexista. Berez, jatorri kulturala du, besteak beste, emakumeen eta gizonen sozializazio prozesuak desberdinak baitira. Aspalditik dator indarkeria, generoen arabera lan banaketa gauzatu zenetik: gizonak, indar fisikoak erabiliz, lehen mailako beharriak asetzen zituzten. Mendeetan zehar luzatutako indarkeriaren logikaren ondorioz, gizonezkoek pribilegio ugari lortu dituzte; izan ere, bortxakeria ez da soilik fisiko, aldagai soziala, ekonomikoa, politikoa, sexuala eta psikologikoa baititu.

Indarkeria sexista normalizatu dago gizarte patriarkalean; are gehiago, emakume askok normalizatzen dituzte indarkeria molde batzuk. Baimendutako patriarkatuaren adibidea jarri dute feministek: mugak norberak egindako haututzat hartzen dituzte emakumeek. Hartara, egitura patriarkala mantentzeko erabiltzen dira indarkeria molde guztiak. Izan ere, patriarkatu emakumeen garapeneren beldur dela aldarrikatu dute feministek, garapen horrek gizonezkoek pribilegioak galtzea ekarriko baitu.

Emakumeen aurkako indarkeria

Datu zehatzik ez dago, baina asko dira munduan zehar indarkeria sexistaren ondorioz hiltzen diren emakumeak. Beste indarkeria mota batzuekin alderatuta, sozialki gutxietsita dago emakumeen aurkako indarkeria, feministen ustez. Horren seinale dira, esaterako, tratu txarren erria emakumei leporatzen dizkieten edota erantzukizuna norbanakoarena dela nabarmentzen duten ahotsak.

Bestalde, gizonen ere ez die onik egiten emakumeak kontrolpean edukitzeko beharri horrek, tartean euren gizatasuna eta duintasuna galtzen baitituzte. Hain zuzen, gizonen jokaera aztertzen hasi behar dela nabarmendu dute talde feminista batzuek Portugaleten. Izan ere, azken urteotan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen soslaiak izan dira aztergai, indarkeriari aurre egiteko moduak oso bestelakoak direla kontuan hartu gabe. Indarkeria hori gizonen eragiten dute, eta beren erantzukizunaren gainean eztabaidatzen hasteko garaia dela aldarrikatu zuten feministek.

>> masensio@berria.info